



Azpeitiko Udala

**AZPEITIKO UDALAREN JOKABIDEARI, GOBERNU ONARI ETA
KALITATE INSTITUZIONALAREKIKO KONPROMISOARI BURUZKO
KODEA**

2023ko martxoa



AURKIBIDEA

HITZAURREA	3
I.- AZPEITIKO UDALAREN JOKABIDE KODEA	4
Jokabideari, Gobernu Onari eta Kalitate Institutuzionalari buruzko kodearen helburua	4
Kode etikoaren hartzaileak	4
Kode etikoaren izaera	4
Tokiko kargu publikodunaren jokabide printzipioak	5
Kargu publikodunak bete beharreko jokabide-estandarrak	6
Betebehar orokorrak	6
Dagozkion erantzukizun publikoak baliatzea	7
Interesen arteko gatazkak	7
Opariak eta (lor daitezkeen) onurak	8
Tokiko ordezkaria den kargu publikodunak beste kargu edo enplegatu publiko batzuekin edota herritarrekin duen harremana	8
Gardentasuna: Informaziorako sarbidea	9
II– GOBERNU ONERAKO PRINTZPIOAK	10
Gobernu Onerako printzipioak tokiko ordezkaritza duen kargu publikodunaren jardueran	10
Gobernu Onerako printzipioak, prestazio eta baliabide publikoak kudeatzeari begira	11
III–TOKIKO ORDEZKARIAK DIREN KARGU PUBLIKODUNEN ERANTZUKIZUNAK ETA KONPROMISOAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALETAN KALITATE INSTITUZIONALEKO POLITIKA ABIARAZTEAKO	12
Azpeitiko Udaleko gobernu-taldeetako kideek beren gain hartzen dituzten konpromisoak eta erantzukizunak	12
Azpeitiko Udaleko oposizioko alderdietako kideek beren gain hartzen dituzten konpromisoak eta erantzukizunak	15
IV.- NORBANAKOAREN ATXIKIMENDUA	17
V.- AZPEITIKO UDALEKO ETIKA ETA GOBERNU ONAREN BATZORDEAREN OSAERA ETA EGINKIZUNAK	18
OSAERA	18
EGINKIZUNAK	18
JOKABIDE-KODEA EZ BETETZEAGATIK EDO BEHAR BEZALA EZ BETETZEAGATIK HARTU BEHARREKO NEURRIAK	19
I ERANSKINA	21
II ERANSKINA	22



HITZAURREA

Azpeitiko Udalak Gobernu Onerako eta hobekuntzarako bideari ekin dio, Kudeaketaren Bikaintasuna lortzeko. Bide horretan, estrategia honen oinarri diren printzipioak helarazi eta bateratu behar ditugu, eta koherentzia osoa eman behar diogu, Etika eta Gobernu Onaren Kode honen bidez.

Dokumentu honek, besteak beste, honako hauek jasoko ditu sakontasunez: bete beharreko jokabidearen printzipio eta estandar orokorrak, betebehar orokorrak, erantzukizun publikoen jarduna, interes-gatazkak, kargu Publikodunen jarduera, prestazio eta baliabide publikoen kudeaketa, bai eta Udal Gobernu osatzen dutenek eta beren borondatez bat egiten dutenek beren gain hartzen dituzten konpromiso eta erantzukizunak ere, kalitate instituzionaleko politika gauatzeko Azpeitiko Udalean.

Orain arte, tokiko ordezkari politikoek adierazi dute beren funtzio publikoetan jokaera-kode bat betez aritzeko borondatea dutela, lege hauetan jasotako printzipio orokorretan eta jarduera-printzipioetan oinarrituz: Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea (Gobernu Onari lotutako 25.etik 40.era bitarteko artikulua) eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2006 Legea (VI. Titulua. Gobernu Irekia, Gardentasuna, datu irekiak eta herritarren parte-hartzea. 11. kapitulua. 35. artikulua); adierazi dute, halaber, konpromiso berriak hartzeko borondatea dutela, udal kudeaketaren esparruan etika publikoa eta kalitate demokratikoa eta parte-hartzailea indartzeko, eta herritarrek beren gobernuan eta administrazioan duten konfiantza sustatzeko.

Beraz, Azpeitiko Udalaren Etika eta Gobernu Onaren Kodeak hautetsien eta herritarren arteko konfiantza handitzeko tresna izan behar du, baita udal arduradunen jarduteko konpromiso publikoa ere, hautesleek emandako agindua errespetatuko dela bermatzeko.

Etika eta Gobernu Onaren Kode hau egiteko, kontuan hartu dira kode etikoen eta jokabide-kodeen arloan dauden beste jardunbide egoki batzuk, hala nola EUDELe 2013an egindakoa, kode hau idazteko oinarritzat hartu dena, Eusko Jaurlaritzaren Etika eta Jokabide Kodea (105. zk. ko EHAA, maiatzaren 28ko 13/2013 ebazpena), Tokiko Gobernu Onaren Kodea, FEMPk onartuta, 2015eko martxoaren 24an, bai eta Gipuzkoako Foru Aldundiak 2016. Urtean onartutako zuzentasun sistema.



I.- AZPEITIKO UDALAREN JOKABIDE KODEA

Jokabideari, Gobernu Onari eta Kalitate Instituzionalari buruzko Kodearen helburua

Jokabide Kode honen helburu nagusia da Azpeitiko Udalean tokiko ordezkari politikoei eta Udal Gobernuak bete beharreko printzipioak eta balioak zehaztea.

Kode etikoaren hartzaileak

Jokabide-printzipioei, jokabide-estandarrei eta gobernu onaren printzipioei buruzko atalak Udal Gobernuak osatzen duten Azpeitiko Udaleko ordezkari politikoei aplikatuko zaizkie, bana baita gobernu-erantzukizunik ez duten ordezkari politikoei ere.

Nolanahi ere, udal ordezkari politiko guztiek nahitaez bete beharreko konpromisoa da.

Kode Etikoaren izaera

Aurreko atalean aipatutako hartzaileek kode honetan jasotako etika- eta jokabide-arauak errespetatu beharko dituzte. Arau horiek betetzen ez direla edo behar bezala betetzen ez direla modu frogagarrian egiaztatu ondoren, Etika eta Gobernu Onaren arloan sortutako batzordeak jarraian agertzen diren neurrietako bat hartzea proposatuko du. Horretarako, erabaki hori hartzeko arrazoi zehatzak jasoko dituen txosten arrazoitu eta xehatua egingo du batzordeak, boto partikularrak barne, aztertutako ekintzen edo ez-egiteen larritasunaren edo eragin instituzionalaren ondorioen arabera:

- a) **Ohartarazpena** egitea, ekintza edo ez-egite batean inplikaturik dauden pertsonari edo pertsonen, ezarritako arau etiko, jokabide-arau, balio, printzipio eta konpromisoak ez betetzea edo haiei eragitea badakar, urratzeak interes publikoari kalte arina eragiten dion kasuetarako; aldi berean, hauxe ohartaraziko da: antzeko jokabideetan edo omisioetan berriro eroriz gero, kargutik berehala kentzea edo karguari uko egitea gomendatu ahal izango litzatekeela.
- b) **Kargua berehala uzteko edo karguari uko egiteko gomendioa ematea**, ekintza edo ez-egite batean inplikaturik dauden pertsonari edo pertsonen, ezarritako arau etikoak, jokabide-arauak, balioak, printzipioak eta konpromisoak ez-betetzeak, edo haiei eragitea badakar, eta urratze horrek interes publikoari kalte larria eragiten badio.
- c) **Egintzak helaraztea**, Etika eta Gobernu Onaren batzordeak emandako txostenarekin batera, **organo eskudunari**, aplikagarri den legeriak aurreikusten duenaren arabera, espedientea hasteko, instrukzioa egiteko, eta, hala badagokio, diziiplina-zehapena jartzeko.
- d) **Ministerio Fiskalera igortzea**, Etika eta Gobernu Onaren batzordearen bidez, ez-betetzea berekin ekarri duen egintzak edo ez-egiteak lege kontrako zigor-izaera badu.
- e) **Adierazpena**, esanez ez dela ez-egite edo ez-betetzerik, kode honetako



arauak hobeto betetzeko eman daitezkeen gomendioak alde batera utzi gabe.

Tokiko kargu publikodunaren jokabide-printzipioak

Bere eginkizunak betetzean, edozein ordezkari edo kargu publikodunen jokabidea arautu behar duten printzipioak zehazten dira jarraian.

- **Osotasuna.** Osotasunaren bidez, zerbitzari publikoak era koherentean jokatu ahal du egunero, zerbitzu publikoaren printzipioa eta horrekin bat datozen gainerako printzipioak betez, esate baterako, alderdikeriarik eza, eraginkortasuna, gardentasuna, legezotasuna, etab. Horrez gain, balioen arteko gatazka ezin saihestezkoa denean, erdigune zuzena bilatuko du, hau da, lortu nahi diren balioen arteko konpromiso zuhurra.
- **Eredugarritasuna.** Udala herritarrentzat eredugarri den erakundea denez, saihestu egin behar da Udalaren irudi instituzionalari kalte egin diezaiokeen edozein ekintza edo omisio, kalte apur bat bada ere, eta herritarrek tokiko gobernuengan duten uste ona honda dezaketen ekintza edo omisio guztiak.
- **Interes subjektiborik eza.** Erabaki politikoak interes publikoaren onerako eta herritarren onura lortzeko baino ez dira hartu behar. Horrek esan nahi du, era berean, ez dela susmorik txikiena ere izan behar hartutako erabakiak onuragarriak direla (edo izan daitezkeela) erabakiak hartzen dituen pertsonarentzat, haren senideentzat, lagunentzat, edo erabakiok udalerriaren interes orokorretik urrun dauden negozio-interes partikularren eraginpean daudela.
- **Alderdikeriarik eza.** Erabakiak hartzerakoan, jasotako aginpidearen ondoriozko betebeharren bat bete behar izanez gero, alderdikeriarik gabe jokatu behar da beti. Mota horretako jardueretan, batere alderdikeriarik gabe jardun behar da, langileak izendatzeko prozesuetan, administrazioko kontratazioan, diru-laguntzak ematean edo ukatzean, arauak ezartzean, eta finantza arloko edo bestelako baliabideak erabiltzean.
- **Kontuak ematea.** Hartutako erabakien eta egindako ekintzen erantzule izan behar du beti. Hortaz, erabakiak hartzeko arrazoi objektiboak ezagutzera emango dira, erabaki horien azterketa politikoa egiteko, eta herritarrek aztertu ahal izateko moduan azalduko dira. Horrez gain, ebaluatu egingo dira eta, hala badagokio, egindako akatsen ondorioak bere gain hartuko ditu kargu publikodunak. Kontu emateak eskatu egiten du, beti eskatu ere, erabaki txar edo okerren bat hartzearen ondoriozko erantzukizun politikoak edo kudeaketa-erantzukizuna nork bere gain hartzea.
- **Gardentasuna.** Erabakiak hartzerakoan eta jarduerak gauzatzerakoan argi eta garbi eta gardentasunez jokatu behar du; erabakiak hartzeko prozedura



eta arrazoiei buruzko informazio fidagarri eta osoa eman behar die herritarrei; halaber, erabaki horien finantza-kostuen berri eman behar du, legeetan kontrarik ez bada xedatu behintzat. Garden jokatzeko Gobernu Irekiaren (kristalezko gobernuaren) aldeko apustu sendoa egitea eskatzen du, batik bat kutxa publikoetan eta herritarrek ordaintzen dituzten zergetan ekonomia- eta finantza-ondorioak dituzten erabaki guztietan.

- **Zintzotasuna.** Zintzo jokatu behar da eta, horretarako, ezinbestekoa da funtzio publikoak gauzatzea oztopatu dezaketen interes pribatuak ezagutzera ematea eta gerta daitezkeen interes-gatazkak konpontzeko pausoak ematea. Hortaz, nahitaezkoa da Zuzenbideari men egitea, prozeduren edukiari eta asmoari jarraitzea, ekonomia eta finantzak modu eraginkorrean kudeatzea, jokabide-kode hau betetzea, eta norberaren zein Udaleko beste ordezkaritza-kargu publikodunen edozein interes-gatazka ezagutzera ematea.
- **Errespetua.** Herritarrak, langile publikoak eta gainerako ordezkariak behar bezalako errespetuz tratatu behar ditu, une eta leku guztietan. Beraz, ez da mespretxuzko hitzik erabiliko, gainerakoen eskubideak zainduko dira, ez da inor diskriminatuko, jendea adeitasunez tratatuko da eta, tokiko erabakiak hartzeko prozesuetan, pertsona bakoitzak erakundean dituen zereginak aintzatetsiko dira. Adeitsuki tratatu behar dira udaleko ordezkari politikoak, langileak, hornitzaileak eta herritarrak.

Kargu publikodunak bete beharreko jokabide-estandarrik

Jokabide-estandarrik, jarduteko printzipioen multzoa dira. Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko ordezkari den kargu publikodunak bete beharrekoak. Era berean, ordezkaritza-kargu publikodun izatetik eratorritako gutxieneko zeregin eta betekizunen zerrenda biltzen dute. Zeregin eta betekizun horien helburua da funtzio horiek Azpeitiko Udalaren egitura politikoan duten paper instituzionala indartzea, herritarren aurrean betetzen direla ziurtatze aldera.

Azpeitiko tokiko ordezkaritza-karguaren jokabidea, estandar hauetara egokituko da:

Betebehar orokorrak

- Egoera bakoitzak eskatzen duen errespetuarekin eta begirunearekin tratatu beharko ditu gainerako pertsonak, beti eta nonahi.
- Informazio konfidentzialik edo daukan karguagatik jasotako informaziorik ez du emango, eta informazio hori gorde beharko du. Zeregin hori gardentasun-printzipioarekin uztartu behar da.
- Bere jokabideak ez dio kalterik egingo ordezkatzeko duen erakundeak herritarren aurrean duen irudiari, ezta eta erakundearen ospeari ere.
- Herritarren aurrean ordezkatzeko duen Udalaren irudia kaltetzeko moduan ez du jokatu, ezta erakundearen ospe ona kaltetzeko moduan ere.
- Ez du bere kargu instituzionala inola ere baliatu behar onurak beretzat lortzeko, edo beste pertsona edo erakunde bati abantailak edo



desabantailak eragiteko, legeak onartzen dituen diskriminazio positiboko kasuetan izan ezik.

- Beste pertsona batzuek beraren jarraibideak betetzen dituztenean, ahalegina egingo du pertsona horiek jarraibideak balia ez ditzaten onurak beraientzat lortzeko, edota hirugarren batzuei kalte eragiteko edo onura ekartzeko.
- Arrazoi objektiboak eman behar ditu beti, erabaki politiko guztiak justifikatzeko, eta zentzuzko eran emango ditu horiei buruzko arrazoiak.
- Erabakiak hartzean, iritzi eta aholku guztiak hartuko ditu aintzat, bai eta lagungarri izan daitezkeen txosten eta azterketa guztiak ere, konpondu beharreko arazoak izan dezakeen irtenbiderik zentzuzkoena eta eraginkorrena erabakitzeko eta bermatzeko.

Dagozkion erantzukizun publikoak baliatzea

- Dagozkion zereginak beteko ditu arduraz, arretaz, gardentasunez eta bere erabakien erantzule izateko borondatez.
- Ahalegina egingo du faboritismoz kutsatutako praktikak saihesteko, eta ez du biderik emango herritarrek pertsona edo erakunde batzuen aldeko mesede-tratua duela pentsatzeko.
- Ez du bere karguari dagokion eskumenik erabiliko, zuzenean edo zeharka, bere interes pribatuaren alde egiteko, edota pertsona edo talde batzuen interes espezifikoek onura ekartzeko.
- Bozketaren bat egin edo erabakiren bat hartzean, jendaurrean jakinarazi beharko du bere interesak interes publikoarekin bat datozeela. Era berean, zuzeneko edo zeharkako interes pertsonala duenean, edo interesen arteko talka egon daitekeela ondorioztatu daitekeen guztietan, ez du bozkatuko bozketa egitean edo erabakia hartzean.
- Baliabide publikoak eraginkortasunez kudeatuko ditu, eta ez du ondasun publikorik erabiliko interes pribatuak lortzeko.
- Behar bezala bermatuko du berdintasunezko tratua emango diela herritarrei eta entitate edo erakundeei, inolako bereizkeriarik egin gabe.
- Zuzentasuna (berdintasuna) sustatuko du, eta eraginkortasunez kenduko ditu helburu hori osorik betetzeko aurkitzen dituen oztopo guztiak.
- Oro har, bere jardun publikoari eta erantzukizunak betetzeari buruz eskuarki onartuta dauden arau eta konbentzio sozialak errespetatu beharko ditu.

Interesen arteko gatazkak

- Interesen arteko gatazka sortuko da interes publiko baten edo batzuen, eta beste interes pribatu edo publiko batzuen artean interferentziaren bat dagoenean, eta, horren ondorioz, arriskuan jartzen da, edo arriskuan jartzen dela dirudi, zeregin publiko nagusia independentea, objektiboa eta inpartziala izatea (Jospinen Komisioaren definizioa, 2012).
- Edozein interes-gatazka ekidin behar da; interes gatazka dagoela iritziko zaio baldin eta erabakiak hartzeko prozesu batean edozein pertsonak uler dezakeenean betebeharrak publikoak betetzea eragozten edo zailtzen duten interes pribatuen eraginak daudela.
- Ez dituzte beren prerrogatibak edo eskumen instituzionalak erabiliko prozedurak arintzeko, kargetatik salbuesteko edo hirugarrenei inolako onurarik emateko, udalarenak ez diren interesengatik.
- Era berean, ez du egingo udalaren interes publikoekin, zuzenean edo zeharka, talka egin dezakeen edo tokiko ordezkariaren jardura politikoa zuzenean edo zeharka zalantzan jar dezakeen negoziarik.



- Kargu publikodunek haien zeregin eta erantzukizunen kontrako interes-gatazkaren bat antzematen badute, ezagutzera eman behar dute berehala; hau da, adierazi behar dute, ahal izanez gero idatziz, interes-gatazka hori zein den edo, gutxienez, interes-gatazkaren bat sortu den susmoa dutela. Betiere, interes-gatazkaren bat sortzen bada edo sortu daitekeen susmoa badago, erakundearen ospea zaintzeko kautelazko neurri hau hartu behar dute: interes-gatazkaren bat dagoen susmoa edukiz gero, erabakiak hartzeko prozesuetan, parte hartzeari uko egitea.

Opariak eta (lor daitezkeen) onurak

- Ordezkaritza-kargu publikodunek ez dituzte haien karguak direla eta, pertsona eta erakundeek egin nahi dizkieten opari eta zerbitzuak onartuko; salbu gizarte-ohitura eta adeitasunagatik egiten direnak. Aipatu ohitura horiez gaindiko opariak erakundearen ondarean sartuko dira. Betiere, aipatu kargudunek haien erabaki politiko, publiko edo administratiboetan eragina izan dezaketean dohaintza, opari edo zerbitzuak ez dituzte onartuko.
- Ez du onartu behar inolako sarrerarik, txartelik, loteria-zenbakirik edo zuzeneko nahiz zeharkako bestelako onurarik, ohiko, gizarteko eta adeitasunezko usadioetatik harantz badoa, edota nolabait baldintzatu ahal baditu dagozkion erantzukizunak betetzean etorkizunean hartuko dituen erabakiak.
- Era berean, behar diren zentzuzko neurri guztiak hartu beharko ditu behar bezala bermatzeko bere hurbileko familia-zirkuluak ez duela jasotzen oparirik edo onurarik, pertsona edo entitatearen baten aldeko tratua izateko susmorik txikiena eragiteko moduan.

Tokiko ordezkaria den kargu publikodunak beste kargu edo enplegatu publiko batzuekin edota herritarrekin duen harremana

- Behar den begirunez hartuko ditu udaleko arduradun politikoak, bereziki oposizioko alderdietako kideak.
- Era berean, oposizioko alderdietako kideek behar den begirunez eta adeitasun instituzionalez hartuko dituzte tokiko gobernuko taldeko kideak.
- Tokiko politikarien arteko harremanetan, adeitasuna eta gizabidea nagusitu beharko dira beti.
- Begirunez eta arreta bereziz hartu beharko ditu udal-administrazioako enplegatu publikoak, bereziki berak egiten dituen zereginei dagokien jarduera-arloko edo jarduera-sektorekoak diren kideak. Hortaz, ez du begirune eta adeitasun hori aldatu edo kaltetu dezakeen jokabiderik izan behar.
- Herritarrei harrera egitean, zuzentasun eta adeitasun osoz jokatu du, eta gogotsu entzungo ditu haien proposamenak, iradokizunak eta kexak.



Gardentasuna: informaziorako sarbidea

- Jarduera politiko eta kudeaketa-jarduera guztiak gardentasun oinarriaren mende jarri beharko dira, legeak isilpekotasuna eskatzen duenean edota hirugarren batzuen eskubideetan eragina izan dezakeenean izan ezik. Nolanahi ere, salbuespen horiek modu murriztailean ulertuko dira.
- Publizitate aktiboaren oinarria eraginkortasunez beteko da, erakundeetan gardentasuna bermatze aldera.
- Eraginkortasunez bultzatuko da herritarrek eta erakundeek jendaurreko informazioa eskuratzeko sarbidea izan dezaten, legeek ezartzen dituzten mugak aintzat hartuta.
- Informazioa eskatzeko jasotzen diren eskaerei, behar bezala arrazoitutako erantzun arinak emango zaizkiela bermatuko da.
- Udalean gobernu irekia ezartzearen alde, datuak berrerabiltzearen alde eta administrazio elektronikoaren alde egingo da.
- Herritarrek parte hartzeko finkatuta dauden bideak sustatuko dira, bai eta Internet eta sare sozialak ere.
- Lanean arituko dira administrazioa irekia eta erraztua izan dadin, eta hizkera erraza eta ulergarria erabil dezan.
- Bere zereginak betetzean, une oro babestuko dira izaera pertsonaleko datuak

II – GOBERNU ONERAKO PRINTZPIOAK

Euskal Autonomia Erkidegoko udalek jarraian agertzen diren printzipioen arabera gobernatuko dute eta gauzatuko dute beren ekintza politikoa, kudeaketa politikoa ahalik eta gehien bete ahal izateko.

Printzipio horiek etengabeko hobekuntzako helburuak dira, eta ezin izango dira alde batera utzi gobernatzeko ekintzan, udalen tipologia desberdinaren ondorioz, tamaina, antolakuntzako egitura edo eskura dauden baliabideak aintzat hartuta.

Tokiko Gobernu Onerako Printzipioak bi ataletan egituratuta daude, helburuaren arabera: alde batetik, jarduera politikoari buruzko informazioa ematea, eta, bestetik, gobernariek baliabide publikoak kudeatzea.

Gobernu Onerako Printzipioak tokiko ordezkartza duen kargu publikodunaren jardueran

- Indarrean dagoen sistema juridikoa errespetatzea, eta herritarren oinarrizko eskubideak bermatzea.
- Herritarrek gai publikoetan eta tokiko erabaki publikoak hartzeko prozesuetan parte har dezaten sustatzea.
- Gardentasunez jokatzeko, erabakiak hartzeko prozesuetan, eta herritarrei behar den informazio guztia ematea, erraz eskuratzeko eta ulertzeko moduan.



- Herritarren beharrezarri arin erantzutea, arazoak konpontzea, eta egiten dituzten eskaerak zentzuzko epean betetzea.
- Politika- eta gizarte-arloan eta herritarrekiko harremanetan bat etortzeko prest egotea, eta buru argiz egitea bitartekaritza-lana, gizarteko interes desberdinen artean, gizarteko aktoreei arreta berezia eginez, batez ere, gizarte-egoerarik ahulenean daudenei.
- Antolamendu-egituren eta prozeduren antolaketa berritzea eta modernizatzea sustatzea.
- Udal-gobernantza adimentsu eta iraunkorraren alde egitea.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta gizarte-kohesioa sustatzea, eta aniztasuna eta elkarbizitza egoki kudeatzea.
- Baliabide publikoak modu eraginkor eta zentzuzkoan kudeatzea, baliabideak ez suntsitzea, justifikatu gabeko gasturik ez egitea eta zorpetzea eramangarria izan dadin lortzea.
- Erabaki politiko eta administratibo guztien erantzule izatea, bereziki kudeaketan dituen emaitzena.
- Herritarrak Azpeitikoak diren sentimendua sustatzea, eta baliabide publikoak errespetatzeak eta arduraz eta modu eramangarrian erabiltzeak duen garrantzia nabarmentzea.

Gobernu onerako printzipioak, prestazio eta baliabide publikoak kudeatzeari begira

- **Iraunkortasuna.** Oreka zuzena bilatuko du gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-arloko lehentasunen artean, eta herritar guztien parte-hartzea sustatuko du. Hirigintzako plangintzako erabakiak hartzean, hiri-ingurune iraunkorrak eta adimentsuak sustatuko ditu, pertsonak dituzten beharrezarriekin bat datozenak. Iraunkortasuna ez da ingurumen-arloa murriztu behar; aitzitik, baliabide-mota guztietara eraman behar da, baita ekonomia- eta finantza-arloetara ere.
- **Zuzentasuna.** Zuzentasunean oinarritutako politikak eta zerbitzuak egitearen alde joko du, hala helburu publikoari, nola zerbitzuen prezioari (tasei) begira; ildo horretan, tasak behar bezala egokituko ditu, herritar bakoitzak duen finantza gaitasuna aintzat hartuta. Pizgarriak jarriko dira, gizarte-egoerarik ahulenean dauden talde jakin batzuei emateko.
- **Berdintasuna.** Emakumeen eta gizonen arteko egiazko eta benetako berdintasuna bermatuko da, printzipio hauek betez: tratu aldeko berdintasuna, aukera-berdintasuna, aniztasunarekiko eta desberdintasunarekiko errespetua, generoko ikuspegia barne hartzea, ekintza positiboa, sexuaren araberako rola eta estereotipoak kentzea, ordezkartza orekatua lortzea, eta era koordinatuan eta lankidetzan aritzea.
- **Eraginkortasuna.** Zerbitzuak egiteko eta gastu publikoa kudeatzeko, eraginkortasunari lotutako irizpideak hartuko dira kontuan, mota guztietako baliabideak erabiltzean. Ildo horretan, zerbitzuen kostua aurrez jakin behar da, eta helburu argiak eta kudeaketako adierazleak finkatu behar dira, zerbitzu horien kostua ebaluatu ahal izateko.



- **Gardentasuna eta kontuak ematea.** Hala erabakiak hartzeko prozesuetan, nola administrazioko prozeduretan edota tokiko botere publikoen jardueran, gardentasunaren printzipioari jarraituko zaio. Printzipio hori publikitate aktibokoa da, eta bitarteko egokia da herritarrek informazio publikoa eskura dezaten bermatzeko, betiere, legeek finkatutako gutxieneko mugak betez.
- **Konpromiso zibikoa, eta bertako hizkuntza eta kultura eta aniztasuna babestea.** Euskara eraginkortasunez ezarriko da, eta haren erabilera erabat zabalduko da, hala tokiko administrazioarekiko harremanetan, nola udalerri barruko gizarte-harremanetan. Euskal kulturaren adierazpide guztiak bultzatuko dira. Era berean, alderdi hauek sustatuko dira: aniztasunaren kultura, herritarren erantzukizun zibikoak, errespetuaren kultura, gatazkak era alternatiboan konpontzeko baliabideak eta bitartekaritza, bai eta gizarte-egoerarik ahulenean dauden pertsonak (gazteak, adinekoak, etorkinak, langabeak, etab.) osatutako kolektibo edo taldeek tokiko politikan parte hartzea ere, tokiko gobernuak bere interesak, iritzia eta ikuspegiak era egokian balioetsi ahal izan ditzan erabakiak hartzeko prozesuan.
- **Segurtasuna eta babes zibila.** Herritarrek arrisku naturalen aurrean gaur egun duten kontzientzia bultzatu, eta krisialdiko egoeren kudeaketa sustatuko da; horrez gain, ingurune segurua eta osasungarria bermatuko zaie biztanle guztiei, bereziki haurrei. Udalerrikoa izateko sentimendua sustatuko da; horretarako, herritarren arteko elkarbizitza eta garapena lantzeko politikak prestatuko dira, eta herritarrek gune publikoan eta gainerako auzokideekiko harremanetan dagozkien betebeharrak eta erantzukizunak har ditzaten bultzatuko da. Horrez gain, beste alderdi batzuetara hedatuko da segurtasuna, hain zuzen ere, herritarren erosotasuna eta lasaitasuna hobetzeko eta osasuna bermatzeko (kaleak eta plazak zaintzea, urak eta hondakinak tratatzea, elikagaiak kontrolatzea, etab.).

III – TOKIKO ORDEZKARIAK DIREN KARGU PUBLIKODUNEN ERANTZUKIZUNAK ETA KONPROMISOAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALETAN KALITATE INSTITUZIONALEKO POLITIKA ABIARAZTEKO

Azpeitiko Udaleko gobernu-taldeetako kideek beren gain hartzen dituzten konpromisoak eta erantzukizunak

Azpeitiko udaleko alkateak eta bere gobernu taldeek, erantzukizunez gidatu behar dituzte udal-gobernua eta erakundearen zuzendaritza politikoa, erakundeekin zintzo jokatu behar dute beren zereginak betetzean, eta ahalegina egin behar dute herritarrentzat ahalik eta ongizaterik handiena lortzeko, dagozkien eskumenen esparruan, eta udalerriak eskura dituen baliabideak erabiliz.

Ondorio horretarako, konpromiso eta erantzukizun hauek hartuko dituzte herritarren aurrean:

- **Erakundea duintasunez ordezkatzea.** Alkateak (eta, harekin batera, gobernu taldeko kideek) konpromisoa hartzen du erakundea oro har ordezkatzeko, eta ez zati bat bakarrik. Europako Jokabide Kodean jasota dagoenari jarraiki, erantzule dira tokiko herritar guztien aurrean, bai eta botoa eman ez dieten bozkatzailen aurrean ere. Erakundeko ordezkariak eta, orobat, tokiko agintariak dira, legezkotasun demokratikoaren ondorioz. Hortaz, zuzentasun eta eutsitasun



bereziz aritu behar dute kargua betetzean, eta beren jokabide publikoan eta pribatuan.

- **Herritarrei eraginkortasunez komunikatzea eta gogotsu entzutea.** Udal-gobernuaren tokiko politika kalitatezkoa izan dadin, herritarren ikuspegitik, neurri handi batean, eraginkortasunez komunikatzeko gaitasuna izan behar da. Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko politikariek konpromisoa hartzen dute eskura dituzten baliabide guztiak erabiltzeko (sare sozialak barne hartuta) herritarrekin harremanetan jartzeko, eta beren erabakiak eta, orobat, erabaki horiek hartzeko dituzten arrazoi errazak eta ulergarriak helarazteko. Horrez gain, hitz ematen dute gogotsu eta arretaz entzungo dituztela herritarren kezkak, iradokizunak eta kexak, eta, era berean, arrazoiak emanez ezetz erantzungo dietela haien eskaerei, egoera dela-eta objektiboki horrela behar denean.
- **Politikak azaltzea eta helburu estrategikoak zehaztea.** Udal-taldeetako kideek hitz ematen dute helburu estrategikoak zehaztuko dituztela, horien bidez, udal-politika koherentea eta iraunkorra prestatu ahal izateko, herritarren onurarako. Politika hori bideratzeko, Agintaldi Planak edo Gobernu Planak egingo dira, denbora-tarte batean. Nolanahi ere, udal- politikaren ardatz horiek ingurune aldakorren arabera egokituko dira.
- **Politikei lehentasuna ematea eta erabakiak hartzea.** Tokiko politikaren funtsa lehentasun politikoak finkatzea da, are gehiago ekonomia- eta finantza-arloko krisialdian, edo aurrekontuei eusteko egoeran egonik. Azpeitiko udaleko ordezkari politikoek hitz ematen dute herritarrei egiten dizkieten zerbitzuen zorroari eutsiko diotela, betiere, ekonomia- eta finantza-arloko egoerak horretarako aukera ematen badu. Hortaz, erantzukizunez jardun beharko dute, udal-finantzen iraunkortasuna jokoan dagoenean, eta, ildo horretan, lehentasuna eman beharko diete udalerrarentzat eta herritarrentzat garrantzi handiena duten politikei (batez ere gizarte-egoerarik ahulenean dauden herritarrak aintzat hartuta). Horrez gain, erabaki korapilatsuak hartu beharko dituzte, testuingurua dela-eta hala behar denean (eta, gero, azalpen egokiak eman beharko dizkiete horiei buruz, udal-oposizioko alderdietako kideei eta herritarrei).
- **Emaitzak edo helburuak lortzeko lan egitea.** Tokiko gobernuko egituretako Politika arrazionalizatzeko prozesuaren ondorioz, ezinbestekoa da emaitzak edo helburuak lortzeko lan egitea, udalak onetsitako helburu estrategikoak eta gobernuko edo agintaldiko planak betez.
- **Arazoei irtenbidea ematea eta gatazkak konpontzea.** Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko ordezkariak hitz ematen dute zentzuzko konponbideak bilatuko dituztela beren erkidegoan dauden gatazkak edo arazoak konpontzeko. Ildo horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko politikariek (alkateak eta beren gobernu-taldeetako kideak) "izaera politikoa duten auziak, arazoak eta gatazkak" konpondu beharko dituzte. Aitzitik, izaera hori ez duten arazoak udal bakoitzeko zuzendaritzako edo administrazioko egituretan konpondu beharko dira. Alkatea ez da "irregulartasunen kudeatzailea", eta ez du inondik ere izan behar; era berean, ez da auzo-erkidegoetako arazoak beti konpontzeaz arduratu behar.
- **Beharrezkoa denean, ordezkaritza ematea.** Alkateak hitz ematen du garrantzi txikiagoko gaiak beste batzuen esku utziko dituela, bere erakundearen eraginkortasuna hobetu ahal izateko, eta herritarrei zerbitzu hobeak eskaini ahal izateko. Gobernuko zereginak betetzen dituen tokiko ordezkari politikoak gai garrantzitsuak hartu behar ditu ardatz gisa, eta beste batzuen esku utzi behar ditu garrantzi txikiagoko gaiak. Hala ere, ondo aztertu behar da zein pertsonaren esku utziko diren gai horiek. Izan ere, pertsona horrek beharrezkoak diren eskumenak izan beharko ditu, bere esku utzitako zereginak behar bezala bete ahal izateko, azken batean, herritarren interesa ondo bermatu ahal izateko, eta herritarren itxaropenei eta interesiei hutsik ez egiteko.



- **Erantzukizunez negoziatzea.** Azpeitiko Udaleko arduradun politikoek konpromisoa hartzen dute taldeko interesak eta udaleko finantza publikoak babesteko, edozein motako talderekin, oposizioko alderdietako kideekin edo erakundeekin negoziazioan aritzean. Izan ere, ez da jarrera arduratsua etorkizuneko belaunaldiak arriskuan jartzea edo udalerria iraunkorra ez den eran zorpetzea. Hautetsiek hitz ematen dute behar den guztietan esango dutela ezetz, negoziazioko prozesuetan daudela, eta arrazoiak emango dituztela, ezezko guztiei buruzko datu objektiboak aurkeztuko dituztela, eta, hortaz, “ezetz positibo” (justifikatua) eta arduratsuaren alde egingo dutela.
- **Baliabide urriei lehentasuna ematea.** Aurrekontuei eusteko testuinguruan, tokiko politikariek erantzukizunez kudeatu behar dituzte udalerrri bakoitzeko baliabide publikoak, eraginkortasunari eta ekonomiari lotutako irizpideak erabiliz. Horren ondorioz, udal-aurrekontuak errealistak eta zehatzak izango dira, gastuari eusteko eta zerbitzuen kostua kontrolatzeko politikak ezarriko dira, aurrekontua udal-politikei egokituta egongo da, eta, horrenbestez, herritarrek ez dira zergen bidez zigortu beharko, baliabide publikoen kudeaketa txarra izateagatik.
- **Udaleko politika publikoak ebaluatzea eta gainbegiratzea.** Alkateak eta bere gobernu-taldeetako kideek konpromisoa hartzen dute beren erantzukizunaren pean osorik dauden zerbitzuak eta politikak etengabe ebaluatu eta gainbegiratu dituztela, horrela, hasieran aurreikusitako helburuetan eta kostuetan inolako desbideratzerik egon ez dadin. Era berean, galarazi egingo dute desbideratze horiek herritarren kalterako izatea. Zeregin horiek betetzeko, beren talde teknikoak eta aholkulari teknikoak hartuko dituzte oinarritzat.
- **Sareak eratzea eta gobernu irekia bultzatzea.** Udal-politikaren arduradunek gardentasun eta gobernu irekiaren politika garatzeko konpromisoa hartzen dute, eta, era berean, sareen eraikuntza sustatuko dute, informazio-trukeen eta sinergien bidez, tokiko gobernuaren garapena bultzatu ea irtenbideak partekatzen eta zerbitzuak emateko orduan kostuak murrizten lagunduko duten sareak. Aldi berean, Euskal Autonomia Erkidegoko gobernu taldeek, tokiko gobernantza adimenduna sustatuko dute, hala, partaidetza-, gertutasun- eta eztabaida-formulen bidez, herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza indartzeko.
- **Gobernuko taldeen edo haien zuzendaritza edo funtzionario taldeen buru izatea.** Alkateak –bereziki, baina gobernu taldeetako kideek ere bai– konpromisoa hartzen dute, gehienbat gogatzeko ahalmenean eta eredugarritasunean oinarrituta dauden lidergoak bultzatuko dituztela beren udaletan. Horrela, profesionaltasuna garatuko dute, proiektu jakin batean lanean ari diren zuzendaritzako taldeen eta enplegatuen arteko kohesioa indartuko dute, laguntza emango dute beren erakundeetan jarduten duten pertsonen emoziozko garapenari eta orekari eusteko, testuinguruan duten jardura erraztuz, eta, horrez gain, konpentsatzeko eta pizgarriak emateko sistemak baliatuko dituzte. Ondo egindako lidergoa bide baliagarria izango da herritarrei egiten zaizkien zerbitzu publikoak hobetzeko.

Azpeitiko udaleko oposizioko alderdietako kideek beren gain hartzen dituzten konpromisoak eta erantzukizunak

Azpeitiko Udalean oposizioko alderdietako kideek, eta, era berean, udal- gobernuko kideak izan gabe hari laguntza ematen dioten kideek, erantzukizunez eta modu eraikitzailean egingo diote oposizio politikoa gobernuko taldeari. Horretan aritzean, zintotasunez jokatu dute erakundeekin, eta ahalik eta ongizaterik handiena eskainiko diete herritarrei, dagozkien eskumenen esparruan eta udalerrriak eskura dituen baliabideen arabera.



Oposizioko alderdien zeregin instituzionala betetzeko, udal-gobernuaren ekintza politikoki kontrolatu behar da, eta proposamen bideragarriak eta iraunkorrak eskaini behar zaizkie herritarrei, gobernurako benetako hautabidea izateko.

Ondorio horretarako, udal-oposizioko alderdietako kideek konpromiso eta erantzukizun hauek hartuko dituzte beren gain, herritarren aurrean:

- **Erakundea duintasunez ordezkatzeara.** Oposizioko kideek konpromisoa hartzen dute instituzioa duintasunez ordezkatzeko, parte hartzen duten ekitaldi, zeremonia edo jarduera instituzional guztietan. Instituzioko ordezkariak dira, hautestontzietan lortu duten legezkotasun demokratikoaren bidez. Era berean, hitz ematen dute zintzotasunez beteko dituztela dagozkien zeregin publikoak, eta zuzentasunez eta eutsitasunez arituko direla karguan, eta jokabide publikoan eta pribatuan. Nolanahi ere, zuzentasun instituzionalaz arituko dira, beren udaleko gobernu taldearekin edo gehiengoarekin harreman politikoak eta instituzionalak izatean.
- **Herritarren eskaerak eraginkortasunez bideratzea eta jakinaraztea eta gogotsu entzutea.** Udaleko oposizioak hitz ematen du erantzukizunez bideratuko dituela herritarren eskaerak, era horretan, balioetsi ahal izateko, eta, hala behar denean, udal gobernuak onartzeko. Ildo horretan, eraginkortasunez arituko dira, eta gogotsu eta arretaz entzungo dituzte herritarren kezak, iradokizunak eta keak. Horrez gain, hitz ematen dute ez dutela objektiboki arrazoizko justifikaziorik ez duen eskaerarik azalduko, hain zuzen ere, udalari eta herritarrei eragingo dizkieten finantzazko kostu haziak direla-eta, onartzeko ezintasun materiala sorraraz dezaketen eskaerak.
- **Lankidetzan aritzea udalerriko helburu estrategikoak zehazteko.** Udaleko oposizioko alderdietako kideek hitz ematen dute modu onuragarrian eta eraginkorrean arituko direla elkarlanean, gobernu taldearekin batera, udalerriko etorkizuna marrazteko lagungarriak izan daitezkeen helburuak zehazteko, horrela, helburu horiei jarraiki, udal- politika koherentea eta iraunkorra egin ahal izateko, herritarren onurarako. Elkarlaneko politika horren ardatz nagusia plangintza estrategikoko tresnak izango dira; eta, hala dagokionean, behar den moduan egokituko dira, inguruabarrak edo testuinguruak hala eskatzen badute. Era berean, gobernu taldeekin itunak edo akordioak egiten saiatuko dira, jarduteko oinarritzko ildoak zehazteko.
- **Politika batzuei lehentasuna ematea, udaleko finantza publikoek udalak eskainitako zerbitzu-zorroaren arlo guztietan esku hartzeko aukerarik ematen ez dutenean.** Udaleko oposizioko alderdietako kideek hitz ematen dute, gobernu taldea kontrolatzeko eta proposamenak egiteko eta zereginak betetzean, udal finantza publikoen egoera hartuko dutela kontuan bereziki, eta, horien egoeraren arabera, lehentasunak finkatuko dituztela, beren programa politikoari jarraiki, haien ustez une bakoitzean ezinbestekoak direnak hautatuz, herritarren beharrezkoen aurre egiteko. Hortaz, baliabide urriak hartuko dituzte aintzat bereziki, hala behar denean; bestalde, zerbitzuen zorroa finantzazko koordinatu horien arabera doitu edo egokituko dute, eta, horrela, saihestu egingo dute udalerriko finantzak ito daitezen, eta finantzako betebeharrak etorkizuneko belaunaldien esku gera daitezen.
- **Udal-gobernuaren ekintza kontrolatzea eta hainbat politika publikoren kudeaketako helburuen eta emaitzen jarraipena egitea.** Oposizioko alderdiek duten zeregin instituzional nagusietako bat da gobernuaren ekintza kontrolatzea, eta hautabide sinesgarria izatea hurrengo hauteskunde-prozesuei begira. Esparru horretan, oposizioko alderdietako kideek hitz ematen dute udal-politikaren jarraipen eraginkorra egingo dutela, behar adina denbora emango dutela zeregin horiek garatzen, eta zorrotz kontrolatuko dituztela gobernu taldearen ekintzak



udal-politika publikoaren hainbat esparrutan dituen helburuak eta emaitzak. Zeregin horiek osorik gauzatzeko, udal-gobernuak tresna guztiak jarriko ditu oposizioaren esku, eta informazioa jasotzeko sarbidea erraztuko dio, indarrean dagoen legeriak ezarritakoari jarraiki.

- **Arazoei irtenbidea emateko eta gatazkak konpontzeko laguntza ematea.** Oposizioko alderdietako tokiko ordezkariak hitz ematen dute laguntza emango dutela, gobernu taldearekin batera, erkidegoak dituen gatazka edo arazo guztiei zentzuzko irtenbidea aurkitzeko. Arazo eta gatazka horien kudeaketaren azken erantzukizuna, jakina, udaleko gobernu taldearena izango da. Hala ere, oposizioko alderdietako kideek bitartekotza- eta kontrol-lana egingo dute, eta, horrenbestez, aukerak bilatuko dituzte kostu publikoak gutxitzeko eta, aldi berean, kasu bakoitzean dauden interes publikoak eta pribatuak zentzuz betetzeko.
- **Erantzukizunez negoziatzea.** Oposizioko udal-alderdietako arduradun politikoek konpromisoa hartzen dute taldeko interesak eta udalaren finantza publikoen iraunkortasuna babesteko, gobernu taldearen edo bestelako erakundeen edo herritarren aurrean negoziatzeko prozesuetan aritzean. Era berean, onartzen dute ez litzatekeela jarrera arduratsua izango etorkizuneko belaunaldiak arriskuan jartzea edo udalerria iraunkorra ez den eran zorpetzea. Euskal Autonomia Erkidegoko oposizioko alderdietako tokiko politikariek konpromisoa hartzen dute negoziazioko prozesu guztietan erantzukizunez negoziatzeko, eta era esplizituan justifikatzeko zein arrazoiengatik hartzen duten jarrera jakin bat, era horretan, herritarrek horren berri izan dezaten eta, hala behar denean, balioetsi dezaten.
- **Erantzukizunez parte hartzea udal-aurrekontuak prestatzeko lanetan. Baliabide urriei lehentasuna ematea.** Aurrekontuari eusteko egungo egoeran, Euskal Autonomia Erkidegoko oposizioko alderdietako politikariek konpromisoa hartzen dute erantzukizunez parte hartzeko udal-aurrekontuak prestatzeko lanetan. Ildo horretan, elkarguneak bilatu, eta helburu errealistak zehaztuko dituzte, udalerri bakoitzak dituen baliabide publikoen eraginkortasun eta ekonomia arloko irizpideei jarraiki. Oposizioko alderdietako kide gisa egiten duten lana aurrekontuari egokituko zaio, udalerriak finantza iraunkorrak izan ditzan, horrela, etorkizuneko udalaren jardura arriskuan ez jartzeko, eta, era berean, herritarrak zergen bidez ez zigortzeko.
- **Gobernu irekia eta udal-gardentasuna bultzatzen laguntzea.** Udal-oposizioko alderdietako arduradunek hitz ematen dute gogotsu arituko direla lankidetzan, gardentasuna eta gobernu irekia lortzeko udal politika garatzeko. Era berean, sareak eratzen saiatuko dira, eta, ildo horretan, informazioa eta sinergiak trukatzeko dituzte, laguntza emateko zerbitzuak egitean kostuak gutxitu eta konponbideak partekatu ahal izateko. Oposizioko alderdietako kideek tokiko gobernantza adimentsua eta herritarrek parte hartzeko dituzten tresnak bultzatzeko dituzte, dagozkien zereginak betetzen, herritarrek instituzioengan duten uste ona indartze aldera.

IV.- NORBANAKOAREN ATXIKIMENDUA

Dokumentu honekiko atxikimendua berariazkoa eta banakakoa izango da, eta nahitaezkoa, gobernu-erantzukizunak dituzten ordezkari politikoentzat. Dokumentu honekiko atxikimendua borondatezkoa izango da, gobernu-erantzukizunik ez duten udaleko gainerako ordezkari politikoentzat.

Atxikimendua **dokumentuari erantsitako atxikimendu-adierazpenaren bitartez**



formalizatuko da.

Azpeitiko Udala **Udalean gobernu-erantzukizunak izango dituen ordezkari politiko berri bat izendatzeko, karguaz jabetzeko, aldez aurretik norbanakoaren atxikimendua eman beharko dio tresna honen eduki osoari**, berariaz eta idatziz formalizatuko duen atxikimendua, alegia. Horretarako formalizatutako dokumentuak Udalbatzako Idazkaritza Nagusiak gordeko ditu.

Kodeari banaka atxikitzearen ondorioz, norberaren gain hartzen da, Kode honetan ezarritako printzipio eta jokabideen berariazko edukiarekin, asmoarekin eta espirituarekin bat datozen jokabideak eta portaerak izateko betebeharra eta obligazio osoa.

V.- AZPEITIKO UDALEKO ETIKA ETA GOBERNU ONAREN BATZORDEAREN OSAERA ETA EGINKIZUNAK

Osaera

- Gobernu Irekiaren arloan eskumena duen zinegotzigoaren titularra izango da batzordeburu.
- Azpeitiko Udaleko talde politiko bakoitzeko ordezkari bat.
- Azpeitiko Udaleko idazkari nagusia.
- Langileriaren eta antolaketaaren arloan arduraduna, edo hark eskuordetzen duena.

Eginkizunak

- Etika Batzordea, oharrak, kontsultak eta iradokizunak jasoko dituen organo eskuduna izango da. Halaber, kode honetan ezarritako aurreikuspenetan adierazitako egokitzapen-proposamenak gauzatzeko prozedura jasoko du.
- Etika eta Gobernu Onaren Kodea abian jartzea bultzatzea, behar diren ekintza eta neurrien bidez.
- Etika eta Gobernu Onaren Kodean behar diren aldaketak proposatzea, eta Osoko Bilkurari igortzea, kontuan har ditzan.
- Kodearen hartzaileek eta beste edozein instantziek Etika eta Gobernu Onaren Kodearen aplikazioari buruz egindako kontsultak ebaztea.
- Etika eta Gobernu Onaren Kodean jasotako balio, printzipio eta jokabideak bete ez direlako egindako kexak edo salaketak jasotzea, eta dagozkien izapideak bideratzea.
- Kodearen hartzaileei Etika eta Gobernu Onaren Kodea betetzeari buruzko gomendioak ematea.
- **Etika eta Gobernu Onerako Kodea zenbateraino betetzen den jakiteko, urtero ikuskapen-txosten bat egitea.** Azpeitiko Udaleko Idazkari nagusiak idatziko du txostena. Dokumentu horretan aholkuak eman daitezke. Txostenaren ondorio eta aholkuak publikoak izango dira.
- Etika publikoaren arloko erakundeen hobekuntza helburu duten zabalkunde, prestakuntza edo tailer berariazkoak sustatzea, bidezko diren instantzietan.
- **Etika eta Gobernu Onerako Batzordea gutxienez urtean behin bilduko da, aurrez deialdia eginda, batzordeburuaren aginduz. Aurrekoa ezertan galarazi gabe, aztertu beharreko gaien izaeraren eta presaren arabera, beharrezkotzat jotzen diren bilkura berezi guztiak egin ahal izango dira. Kasu horretan, bilerak aurrez aurre edo baliabide telematikoak erabiliz egin**



daitezke

- Etika eta Gobernu Onaren organoko kideek sekretupean gorde behar dituzte beren eginkizunak betetzean izan duten informazio guztia; bereziki, aztertutako egitateei, ikerketen eta eztabaiden edukiari, eta hartutako erabakiei buruzkoa, bai eta datu pertsonalei buruzkoa ere. Era berean, ez dute inolako adierazpen publiko edo pribaturik egingo arestian adierazitakoari buruz, eta organo horretan abian den prozedurari buruz.
- Etika eta Gobernu Onaren Batzordearen erabakiak eta txostenak publikoak izango dira, konfidentzialtasun-betebeharraren aurka ez doazen heinean. Batzordea osatzen dutenek isilpean gorde beharko dute beren eginkizunak betetzean izan duten informazio guztia; bereziki, aztertutako egitateei, eta ikerketen eta eztabaiden edukiari buruz, eman daitezkeen boto partikularrak ukatu gabe.

Jokabide-kodea ez betetzeagatik edo behar bezala ez betetzeagatik hartu beharreko neurriak

Kode honetan aurreikusitako arau etikoak eta jokabide-arauak urratu direla edo ez direla behar bezala bete, modu frogagarrian egiaztatu denean, Azpeitiko Udaleko Etika eta Gobernu Onerako etorkizuneko organoak, kargu publikoa izendatzeko dagokion organo eskudunari proposatuko dio honako neurri hauetakoren bat hartzea, gertaeraren larritasuna, eragin publikoa eta irudi instituzionalean izan duen eragina kontuan hartuta:

- Inplikaturako pertsona edo pertsonak kargua berehala uzteko ohartarazpena edo gomendioa.
- Beste neurri batzuk hartzea, zehapenekoak ez direnak, egiaztatutako gertaeren larritasunarekin bat datozenak eta ikuspuntu etikotik karguren jarduna artezteko, zuzentzeko eta hobetzeko eraginkorrak direnak.
- Egiaztatutako gertakariak delitu eta/edo delitu arinak edo arau- hauste administratiboak izan daitezkeenean, Etika eta Gobernu Onerako organoak neurri hauek hartuko ditu, kasuan kasu:
 - Arau-hauste administratiboaren kasuan, egitateak organo eskudunari jakinaraztea, aplikatu beharreko legeriak aurreikusten duenaren arabera, dagokion prozedura hasi, instruitu eta, hala badagokio, diziplina-zehapena ezartze aldera.
 - Gaia Ministerio Fiskalera eramatea, Azpeitiko Udaleko Etika eta Gobernu Onerako organoaren bidez, ekintza edo ez-egite horrek lege kontrako zigor-izaera badu.



LERANSKINA

AZPEITIKO UDALEKO KARGU PUBLIKODUNAK ETIKA ETA GOBERNU ONERAKO KODEARI ATXIKITZEKO ADIERAZPENA

Sinatzaileak, Udalbatzak(e)(a)n onetsitako Etika eta Gobernu Onerako Kodearen edukiaren arabera, honako hau adierazten du:

1. Dokumentu honen goiburuan aipatutako Kodearen, eta Kodea onartzen duen Udal Osoko Bilkuraren erabakiaren ale bana duela.
2. Kodea irakurri duela, haren eduki osoari atxiki zaiola, eta Kodean zehaztutako printzipio eta betekizun guztiak betetzeko konpromisoa hartu duela.
3. Onartzen dituela, batetik, Kodea ezagutzera ematea eta aplikatzea errazteko konpromisoa; eta, bestetik, Kodeari atxikitzeak berekin dakartzan betekizun guztiak.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioetarako, adierazpen hau sinatu du,

....., 20.....(e)koaren..... (e)(a)n.

Stua.: Alkatea, Zinegotziak,



II ERANSKINA

KONTSULTAK ETA SALAKETAK AURKEZTEKO MODUA

Ondoren aipatzen diren bideak erabili ahalko dira kontsultak eta salaketak aurkezteko. Harremanetarako datuak eman ahalko dira komunikazioan, edo modu anonimoan ere aurkez daiteke.

- Helbide elektronikoa:
- Posta-helbidea:
- Erregistroa: